

GAI ZERRENDA:

✓ Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Plana (2013-2016). Herritarrek parte-hartzeko II. Foroa.

<u>DEIALDIA</u>	<u>DEITUTAKO KIDEAK</u>	BAI	EZ
<u>DATA:</u> 16/12/2013	1. Joxe María Altzibar	X	
<u>HASIERA:</u> 19:00	2. Roke Arantzamendi	X	
<u>AMAIERA:</u> 21.00	3. M ^a Fran Agirregabiria	X	
<u>TOKIA:</u> Debako Udaletxea. (Batzar Aretoa)	4. Puri Gomez	X	
	5. Miren Esnal	X	
	6. Jose Mari Izaga	X	
	7. Juan Ignacio Aizpurua	X	
	8. Carlos Larramendi Kaltzakorta	X	
	9. Iñaki Urteaga Iñarra	X	
	10. Diego Mendoza	X	
	11. Mila Idiakes	X	
	12. Axier Oñederra	X	
	13. Marian Larrañaga	X	
	14. Mainer Zubikarai	X	
	15. Maite Blanco	X	
	16. Esther Zarrabeitia (DEBEGESA)	X	
	17. Cristina Iturriagagoitia (DEBEGESA)	X	
	18. Aitziber Cortazar (DEBEGESA)	X	

LANDUTAKO GAIEN LABURPENA:

Lehenik eta behin, aurkezpenari hasiera eman aurretik, aurreko bilerako akta banatzen zaie parte-hartzaileei guztiei, berrikusi dezaten. Akta bera e-mailez bidalia izan da goizean ere, aurreko bilerara etorri zirenei.

Alkateak, Maider Zubikaraik, aurkezpenari hasiera ematen dio, orain arte zein lan egin den adieraziz eta momentu honetan zein fasetan gauden zehaztuz.

Cristina Iturriagagoitiak power point bidez aurkezpenarekin jarraitzen du. Ekintza Planaren xedeak, lerro estrategikoak eta programak azaltzen ditu banan banan: 5 lerro estrategiko eta 20 programa.

Aitziber Cortazarrek hartzen du hitza. Bertaratutakoei bakarkako lan bat planteatzen die, fitxa bana betetzeko eskatuz. Fitxa horietan Debarentzat garrantzitsuenak diren ekintzak (programa bakoitzeko gehienez bi) proposatu behar dituzte. 15 minutu ematen zaie fitxa betetzeko. Ondoren, proposatu dituzten ekintza horietako batzuk ahoz beste kideei azaltzen dizkiete, ikuspuntu ezberdinak konpartitzeko asmoz. Ez dira egindako aportazio guztiei buruz jardun behar, fitxak bilera bukaeran jasoko baitira.

Beraz, bertaratutakoek eurentzako garrantzitsuenak diren ekintzak azaltzen dituzte ahoz:

- Etxebizitza programa: bigarren bizitoki diren etxebizitza asko daude Deban eta etxebizitzarik ez duen jende asko dago.
- Mugikortasuna: Debako hirigunetik landaguneetaraino iristen diren autobusak behar dira.
- Lehen sektorea: Langabetuentzako formazioa, lehen sektorera zuzendua.
- Donejakue bidea: Eskaintzen diren zerbitzuak hobetu behar dira.
- Gazteria: Ikastaroak eskaini behar zaizkie.
- Ondare naturala: Flysch-aren kontua zaindua eta kontrolatua dago baina bestelako gune babestuak ere badaude, zeintzuk zaindu eta balorean jarri behar diren. Horiek galtzeko arriskua dago. Espazio naturalen inbentario bat egitea komenigarria litzateke.
- Ondare arkitektonikoa: Sasiolako monasterioan zerbait egin beharko litzateke, alperrik galdua dago.
- Behatokia: Hazkundearen jarraipen bat egin beharko litzateke, datuak ezagutu... eta horren arabera jokatu, lehenbailehen.
- Etxebizitza: Udalak interes publikodun etxebizitzak eraikitzeke orubeak lortu beharko lituzke.
- Donejakue bidea: Erromes asko pasatzen dira Debatik, batez ere udan. Ostalaritzaren zati batek ondo ulertu du hori baina asko ez dira erantzun egoki bat emateko gai izan. Ondorioz, aukera on bat galtzen ari dira.
- Azpiegiturak: Turistek zein Debarrek ez dituzte landaguneetako bideak zaintzen eta ondare publikoa dira. Asfaltatu gabeak dauden landaguneetako bideen inbentario bat egitea beharrezkoa da, asfaltatuak daudenena egin baitago.
- Estuarioa: Eragile inplikatuekin harremanetan jartzea ezinbestekoa da. Izan ere estuarioaren eskuinaldea Mutriku da eta eurek ez dute iniziatiba hartuko.
- Behatokia: Eszenario ezberdinak baloratu behar dira eta zer nahi dugun argi izan eta egin, herriko planeamenduan islatuz.


- Langabezia: Formazio programa bat bultzatu beharko litzateke langabetuei laguntzeko asmoz.
- Etxebizitza: Irtenbide bat bilatu behar zaie alde zaharrear dauden etxebizitza hutseri.
- IBAIA: Ibaia Debarrei zuzendua egon behar da, kirol ekipamenduak bertan ezarriz.
- Langabezia: Dependentsiaren arloan langabetuek aukera berri bat izan dezakete.
- Ekintza Plana: Orain lantzen ari den guztiaren jarraipen bat egin behar da, baita plan osoa idatzi ondoren ere, eta egindako lana benetan zerbaitetarako izatea eta aurrera eramatea.
- Udal kudeaketa: Udala jendearengana gerturatu behar da, biztanleriaren beharretara ireki.
- Nortasun propioa: Deba herri esukalduna izan behar da. Horrez gain, urteko data garrantzitsuei (jaiak, inauteriak...) herriko karakterizazioa eman behar zaie.
- Ibaia: Errekastoa gune natural babestua. Ortu ekologikoak planteatu daitezke bertan.
- Herri ondarea: Praileaitz Debaren ikono bihurtu behar da.
- Urtegi koba: Ikertu egin behar da, zabaltzeko eta erakusteko dituen aukerak baloratu.
- Historia eta kultura: Komunikazioa landu behar da Debarrek beren historia eta kultura ongi ezagutu ditzaten.
- Ondare arkitektonikoa: Eliza bisitatu nahi duenarentzat zailtasunak daude.
- Gazteria: Eszeptikoa da. Ez dute askorik parte hartzen, bilera hau ikusi besterik ez dago.
- Hondakinen kudeaketa: Atal honek garrantzia handiagoa eskatzen du lerro estrategiko eta programei begira.

Ekintza eta aportazio ezberdinei buruz hitz egin ostean, fitxak batzen dira.

Bertaratutakoei Urtarrilaren 10a baino lehen beren aportazioak egiteko eskatzen zaie. Iritzi edota kezka guztiak info@deba.net helbidera helarazi ditzakete.

Debegesako kideek eta Debako Udalak parte hartzea eskertu eta bilera amaitutzat ematen dute.

Honek onartua:



Maider Zubikarai Beristain